

BEILATOKIA TEKU EGOKIAN. Posible da!

Herritar guztiek dakizuen bezala, Iturlandeta 2an Tanatorioa jarri behar dute. Iturlandetako Auzotarrek ez dugu nahi inongo etxe bizitzaren azpian tanatoriorik egotea, ez hemen eta ez inon ere.

Gure adiskideak agurtzeko, Berako herriak beilatokia, toki egokian behar du, herriaren erdian eraikin propio batean, eroso, sarrera erraxa duena eta aparkatzeko toki nahikoarekin. Berako herrian badaude inguru lasai eta atseginak diren eremuak.

Horrela erran genion Udalari, bizilagun aunitzek sinatu zuten idatzi baten bidez, eta ondorioz bilera batera deituak izan ginenean.

Bilera hau hagitz frustrantea izan zen bizilagunentzat, han ikusi genuelako udal buruen aldetik ez zutela adierazi inongo gogorik ez bitartekari izateko eta ez irtenbide egokirik bilatzeko ere.

Bilera horretan Udal ordezkariak zera argudiatu zuten: Gure buruarekin lan berezia egin behar genuela, heriotzarekin bertze harreman mota izateko eta hori gure seme-alabei transmititu behar geniola.

Bai, egia da, hori ongi da, baina ibilbide horrek denbora behar du eta tamalez ez gaude prestatuak oraindik.

Gure senide bat hiltzen denean, dolua barrenean eramaten dugu eta pixkanaka-pixkanaka leuntzen joaten da. Hala ere tanatorioaren bizilagunak izan gaitzkeenak, gizaki sentiberak garenez, behartuta gaude hilaren senitartekoen oinazarekin topatzera, balkoira ateratzekoan, portalean, ondoko parkean eta hainbat momentutan.

Udalan ordezkatzan gaituztenei, baldintza hauek bete daitezzen, eskatzen diegu :

- Udal ordenantzak aldatzea beilatokirik ez eraikitze edozein etxebizitzaren azpian. Bai bere jardueragatik eta bai ibiliko den jendetzagatik eta ibilgailuengatik. Bizilagunak kaltetzen dituelako eta eguneroko jarduera normaltasunez egitea oztopatzen duelako.

Udaleko arduradunekin talka egin izan arren, badakigu zuetako aunitz, gurekin ados zaudetela eta guk sentitzen dugun ezinegona konpartitzen duzuela.

Zuen laguntza eta adiskidetasuna eskatzen dugu, hemendik aitzinera antolatu behar ditugun ekimenekin bat egin dezazuen.

Zuen begirunea sortuko dugulakoan agurtzen zaituztegu.

ITURLANDEAKO BIZILAGUNAK